



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak: Baliabide fisiko gisa hainbat gauza erabiliko ditugu. Lanerako bulego bat edukiko dugu, ordenagailu bat baino gehiago ere erabili beharko dugu, bakoitzak bere mugikorra beharko du, bulegoan telefono bat ere edukiko dugu eta diseinatzeko materiala.

Baliabide intelektualak: Maialenek dituen informatikako eta programaziorako jakinduria beharko dugu gure aplikazioa egiteko, Junek dituen diseinatzeko ezagutzak beharko ditugu, Mariak duen kontzientzia aldaketa klimatikoarekiko beharko dugu aplikazioko mezu eta aholkuak ezartzeko, Ikerrek dituen marketinerako eta publizitaterako ezagutza beharko dugu gure aplikazioa ezagunagoa izateko.

Finantza-baliabideak: Gure aurrezkiak erabiliko ditugu aplikazioa egiteko, baina dirua nahikoa ez zenez bankuari 6950€ko kreditu bat eskatu diogu.